

gurasoendako

txipistinak

Kantu afarirako gonbidapena

Kaixo:

Azkeneko Txipistinak aldizkarian esan bezala, aurtengo KANTU AFARIA ere gertatu dugu Ikastolako Gurasoen Euskara Taldeko kideok. Aurrekoak bezala Larraingain elkartearen izango da. Bakarrik zenbat izango garen jakitea falta zaigu!

- Eguna: urtarrilaren 30a, egubakoitza, 20:30ean
- Tokia: Larraingain elkartearen
- Menua: txistorra, bakailao tortilla, entsalada, saiheskia, postrea eta kafea (eztarria berotzekorik ere izango da)
- Prezioa: 15-20€ gutxi gorabehera



Afalosteko kantua gidatzeko ardura **“Sei Pistols (eta trabuko bat)”** taldeak izango du. Trikitixa, biola, gitarra, pianoa, txistua eta perkusioarekin, betiko doinu herrikoiez gain, Oskorri, Xabier Lete, Benito Lertxundi, Sorotan Bele, Zea Mays... taldeen kantez osatutako erreperorioa gozatuko dugu. Kantu liburuak ere banatuko dira.

Honako gonbidapena ikastolako guraso, irakasle, langile eta ikasle ohiei dago zuzenduta. Beraz, lagun arteko giroan afaldu eta afalostean kantuan egiteko gogorik baduzu, hemen duzu aukera!

Afarira etortzekoa bazara, izena emateko hiru aukera dituzu:

**Próximo 30 de enero
KANTU AFARIA
en la sociedad Larraingain.**

- Bidali mezua: txantxiku@ikastola.net
- Deitu telefonoz: 943 78 12 04
- Bete beheko izen-emate orria eta ikastolara bidali

Para asistir a la cena puedes dar tu nombre mandando un correo a la dirección txantxiku@ikastola.net, o bien llamando al teléfono 943 78 12 04 o rellenando la hoja de inscripción y mandándola a la ikastola antes del 28 de enero.

Izena emateko azken eguna urtarrilaren 28a izango da.

ANIMATU ZAITEZTE!



✂

KANTU AFARIA Izen-emate orria

Izen-abizenak: _____

Guztira zenbat pertsona etorriko zarete? _____